

EZ, GURE ONUREZ, EZ

Zahartzaroaren zein unetan erabaki genuen menopausiaren ondoren hainbeste ahaleginez eta arrakastaz berreskuratu genuen ahotsa galtzea?

Baina, ze txantxa da 70 urtetik gorakoen konfinamendu hau? Zertaz ari gara hitz egiten? Zaharren tropelak biztanleria zabala osatzen dugu eta horien arteko nagusienak Errepublika garaian bizi izan ziren eta besteek, negar egin zuten Diktadura ezartzean eta gogorki egin zuten lan Demokraziaren alde. Barnean, emakume-aitzindari ugarien taldea, horiei esker lortu ahal izan baitziren gure sexualitateaz, gure gorputzez, bizitzaz eta maitasunez jabetu ahal izateko legeak. Baita afektu-ezak alde batera uzteko ere. Zaharrak gaur, bai, baina apreta eta fardel-herri hau, gure lanez, motxila eta doktoretza eremu europarrera bideratu dugunak. Sendotasun osoko jendea, baina orain, bere onurez, menpe jartzen dena. Zaharrak arrisku-biztanleak garela eta birusak harrapatzen bagaitu beste pertsonak baino zailagoa dugula?, badakigu. Kalera ateratzea onartzen ez duen larrialdi-egoera nazionala erabakitzen dela, bale, baina guztiontzat. Erabakitako orduetan bakarrik atera daitekeela kalera, ondo da, baina zu, ni eta bestea, duen adina duela. Inork eta ezerk gure onurez mugak jartzea ez dugu onartzen. Gomendatu daiteke, ondorioaz informatu, baina inolaz ere ez askatasuna mugatu, gogor borrokatu dugunoi – zein zaila den gerra-hizkuntza saihestea - eta azkenik , guk lortutakoari esker askatasunez gozatzen ari diren beraiek - maitasunaren izenean- gure askatasuna mugatu nahi digute gaur egun. Babesa, arreta eta informazioa jaso genitzakeen eskaintza bezala nahi ditugu, behar dugunerako, ez Goi-instantziatik iristen zaigun obedientzia kontu bezala; hobe litzateke askatasuna, justizia eta duintasunez eta begirunez bizi ahal izateko zaintza eraginkorrak eta emankorrak sustatzeko politikak diseinatzen ahaleginduko balira.

Baina ez da dena alde batean geratzen. Asko harritzen nau ni baino emakume zaharrago batzuk – zaharra naiz ni ere zorionez- beren seme-alabek beren kezka erakutsi eta zenbait gauza egiten eragozten dietelako, pozik eta harro sentitzen direla ikusteak: nire alabak debekatu dit; nire semeak ez du ni ateratzea nahi. Geldi hor! Ondo dago gure seme-alabek beren iritzia agertzea baina erabakia, askatasuna, gurea da bakarrik. Badirudi, debekuan, maitasun-dosi bat ikusten dugula beregan eta, zahardade-dosi bat guregan, gure onez, gure bizitzaz erabaki dezaten onartzean. Obedientzia horretan, gure ekintzak zurrizko aginte-argumentua

aurkituko bagenu bezala. Pozik gaude, azkenik!, norbait gutaz arduratzen delako, nahiz eta gure erabaki-gaitasuna, gure bizitza propioaren eragile izatea murriztu. Berriz ere obedienteak izateagatik, etxeko aingeruaren kartilan puntuak irabaziko bagenu bezala. Ai ene! Zahartzaroaren zein unetan erabaki genuen, feminitatearen eta amatasunaren agindutik askatu eta halako ahaleginez eta arrakastaz, menopausiaren ondoren, berreskuratu genuen ahotsa galtzea.

ANNA FREIXAS. GERONTOLOGO FEMINISTA

El País egunkaria, 2020ko apirilaren 21ean

Helduak Adi!n euskaratua